

MENDIZALETASUNAK EMAKUME IZENAK ETA IZANAK DITU

Emakumeon mendizaletasunari buruz idazten hasi aurretik Euskal Mitologiara jo nahi nuke, honek, euskaldunon kulturaren gure izaeran izan duen garrantzia azpimarratu nahian.

Emakume izena du **AMA-LURRAK**, are gehiago **AMA** izena, aho betez aipatzen dugun AMA... hortxe bait dago gu guztion sorburua. Ama-Lurretik sortu eta bere altzon, bere magalean hartuko gaitu bizitzaren akaberan, izadiaren zikloa amaitzen zaigunean.

Mirari handiaren ondorioz munduratu gara guztiok, milaka atomo eta zelulek gizaki bihurtuta; kasualitate hutsa? Agian bai, nork daki !

Emakume izena du alaber Murumendiko damak, gure mitologian hain sustraituta dagoen MARI pertsonaiak, Euskal Herriko mitologiaren Jainkosak, MARI, itxura ederreko emakumea da, Murumendiko kobaz gain Euskal Herriko paraje ezberdinetan beste 20 bat bizitoki dituena, gure bazter maitatuenean zaintzailea, herri-jakinduriaren eta euskaldunon sena eta izaeraren gordailu dena.

Euskal mitologiak, gainerako kultura eta herrialdeetako mitoek bezala, bizitza ikusteko sentitzeko eta bizitzeko moldeak eskaintzen dizkigu, gu guztion euskaldunon pentsamoldeak.

Badira ordea beste pertsonai askoren artean gure mitologian emakume izaera duten pertsonai mitologikoak, erdi gizaki eta erdi animalia itxura duten **LAMIAK**, edo **BASANDEREA**K, sendabelarren ezkutuko sekretuak gordetzen dituzten emakumezkoak.

Hauen jakinduria ez da erabat galdu baina egia da bere garai iluna ere izan zuela BASANDEREEN momento jakin batek, inkisizioak, sorgintzat hartu eta emakume hauetako asko heriotzera zigortu eta desagertarazi nahi izan zituen eta beraiekin batera herri jakintza.

Ez erabat ordea, herri jakinduria ez delako erabat desagertzen, ezkutuan bada ere, izadiarekin lotura duten erritoei eta transmisio bidez ikasitako sendatze tekniketara oinarri sendoa dute eta gaur oraindik ezkutuan gorde izanari esker bizirik daude gure etxe askotan.

Mitologian oinarritu nahi izan dut emakumeok, izadiarekin dugun lotura, baita mendizaletasun grina ere, azkenean oinarri berbera bait dute biek, banandu ezina den lotura. Mikel Arregik idatzitako koplek dioten moduan ***“ lur nintzen ta lurtuz noa zugan bat egin arte, zurekin behin betikoz ezkontzen naizen arte”***.

Bistakoa da azken hilabeteak ez direla inorentzat errazak izan, izurriteak lau paretan artean ezkuturazi gaituelako. Aurtengo udaberria lapurtu izana sentitu dugu, urrutitik ikusi behar izan dugu udaberria loratzen, basoa hostotzen, hegaztiak umatzen. Udaberriko usainik gabe, itxuraldatzerik gabe, kuku soinurik gabe geratu behar izan dugu eta orduan jabetu gara, ondo jabetu ere zeinen garrantzizkoa den izadiaren gertutasuna, Ama-lurraren soineko mudantza gertutik bizitzea, izadiaren koloreek, usainek, soinuek zer nolako eragina duten gure osasun fisiko eta mentalean.

Gure aurrekoek ere izurritez eta gerratez ba zekiten zerbait, eta beraiek ere behin baino gehiagotan izadiaren gertutasunetik urrundu behar izan zuten, azken gerra zibilaren garaian Ordiziako mendizaleen jarduerak ere etenaldi luzea izan zuten baina loraldia heldu zitzairen noizbait, horren lekuko dira Ordizian izan ditugun emakume mendizale askok elkarrizketa bidez egin dizkiguten adierazpenak.



Emakume mendizale hauen ekarpena gogorarazi nahi nuke Ordiziako Mendizale elkartearen 75. Urteurren ospakizunean, gaur Ama-lurrari diogun atxikimendua, izadiarekiko maitasuna beraiek eleazazi digutelako. Elezaharretik edan eta seme-alabei grina berbera itsasteko gai izan direlako mendia maitatzen eta errespetatzen erakutsi digutelako.

Ordiziako emakumeen mendizaleen izen propio asko izan ditu 75 urte luze hauetan, batzuk aipatzearen Eluteri, Juanita, Angelita Julene, Martxeli aipatuko nituzke, jakinda beste asko eta asko isilean geratuko zaizkidala, baina hor daude gaur oraindik mendizale garen emakumeon oroitzapenean eta seguruenera baita hurrengo belaunaldietan mendizale izango diren emakume askoren gogoetan ere.

Beraiei esker gara gu gaur emakume-mendizale Ama-Lurra besarkatu eta koplen antzera behin betikoz, bide-zidor, inguruko tontor eta paraje paregabeekin ezkondu eta maitemintzen erakutsi digutelako. Eta hori guztiaz gain, mendiak eta mendiko giroak, gure Mitologi zaharrera bezala lagun girora murgiltzen gaitu behin eta berriz, laster berreskuratzea espero dugun lagun girora.

Aurrekoen lekzioa ikasita, bihotz bihotzez egin duzuen lana eskertuz bukatu nahi nituzke hitz hauek, jakin ba dakigulako bidea urratzea zailago izango genuela zuen ekarpenik gabe. Eskerrikasko urte luzeetan mendizale izan eta bidea urratzen erakutsi diguzuen emakume guztioi. Gu guztiongan dagoen Ama-Lurraren garrantzia elarazi diguzuen guztioi besarkadarik handiena eta bihotz bihotzez eskerrik anitz.

Mari Karmen Odriozola